

"Entrenatzaileek esan didate nigan konfiantza dutela eta lanean jarraitzeko"

Futbola • Irati Martin Eibar futbol klubeko lehenengo taldeagaz arituko da aurten. Iaz Euskal Ligako pitxitxia izan eta gero, talde nagusira igo dute. Orain arte, partidu solte batzuk jokatu izan ditu nagusiekin. Denboraldiaurrean titular jokatu ditu lagunarteko partidurik gehienak. • 20



Sorginen Lasterketa ANBOTOren webgunean zuzenean jarraitu ahal izango da zapatuan

Probako antolatzaileek prestatu duten emankizuna www.anboto.org webgunean ere ikusgai egongo da, zapatuan



Mendi lasterketa • Sorginen Lasterketa 09:00etan hasiko da eta Oier Ariznabarretak eta Zigor Iturrietak egingo dituzte esatari lanak. • 21


TAO zerbitzu berriak erreakzio sorta anitza ekarri du

Erreportajea • Durangoko TAO zerbitzu berria irailaren 26an ipiniko dute martxan. Nobedade nagusia da zerbitzua herriko eremu gehiagotara zabalduko dela, Muruetorrera, Ibaizabalera eta Txibitenara gehienbat. Itxaropena, desadostasuna, poza zein kezka, zerbitzu berriak askotariko iritziak sortu ditu herritarren artean. • 2-3



Itxaropena, kezka, desadostasuna eta poza: Durangoko TAO berriak askotariko iritziak sortu ditu herritarrengan

Durangoko TAO sistema berria irailaren 26an ipiniko da martxan, zerbitzua herriko guneko gehiagotara zabaldua



TAO sistema berriak zonifikazio berria dauka. Irudian, 4 zonaldeen banaketa.

TAO BERRIA • EKAITZ HERRERA

Zenbat buru, hainbat aburu dio esatera zaharrak, eta badirudi Durangon martxan ipiniko den TAO sistema berriagaz antzerako zeozer gertatzen dabilela. Zerbitzu berritua irailaren 26an ipiniko dute indarrean, besapean

hainbat nobedade ekarrita. Nagusia, hau: TAO eremua herriko zonalde gehiagotara zabalduko dute, Muruetatorre, Ibaizabal eta Txibitena aldera. Baina bada gehiago. Zumalakarregi kalea (Ezkurdi) eta Herriko Gudarien kalea (Anbulatorio zaharraren

ingurua) errotazio altuko guneko izatera pasatuko dira. Bertan, 90 minutuz baino ezingo da kotxea utzi, gehienez. Alde Zaharreko bizilagunek aparkatzeko aukera gehiago izango dute guneko historikoaren bueltako kaleetan: Kurutzia kalean eta Montevi-

deon. Eta TAO zerbitzua behar den moduan erabiltzen dela ziurtatzeko, zazpi ikuskatzaile eta auto ikuskatzaile bat egongo dira beharrez.

Erreakzio sorta

Neurri berriak norbera bizi den auzoaren arabera iritziak sortu ditu. Muruetatorre Auzo Elkarteak kideek, adibidez, "gogotsu" hartu dute albisteak. Auzoan aparkatzeko dituzten arazoak konponduko zaizkielakoan daude. Aramotzen, oster, iritzi aniztasuna da nagusi. TAO sistema ez da hara zabalduko. Eta auzotar batzuek uste dute gidari askok bertara joko dutela debalde aparkatzeko. Aramotzeko beste auzotar batzuek, bestalde, euren inguruan TAO zerbitzurik ez dela behar diote. Gaiari estutu berri bat emanda, oster, inguruko herrietako bizilagunak daude, Durangora errekaduak egitera, lanera zein erosketak egitera doazen eskualdeko herritarrek. Horiei ere eragiten die neurriak, eta jakin-mina isiotu zaie haiei ere. Kaleren irten dugu iritziak jasotzera.

Landako Guneko aparkalekua, 24 orduz erabilgarri egoteko bidean

Durangoko gobernu taldeak Landako Guneko aparkalekua urritik aurrera 24 orduz erabilgarri egotea gura du. Asmo hori duela jakinarazi du hedabideetara bidalitako oharrean. Horrez gainera, aparkatzeko abonua berriak eskainiko dituela ere gaineratu du. 2021etik 2022ra bitartean, Durangoko Udalak hainbat birmoldaketa egin zuen Landako Guneko aparkalekuan. Makinak berri zituen, eta bideozaintza sistema instalatu zuen, besteak beste. Orain, beste pauso bat ematea aurreikusitua da. Aparkalekua "gaueko ordutegian langilerik barik" zabalik egotea gura dute, 24 orduz. Udalak adierazi du herritarren "aspaldiko" eskari bati erantzun egoteko modu horretan. Zerbitzuaren prezio publikoak finkatu barik daude oraindik. Politikariek hile honetako udalbatzan eztabaidatuko dute gaia.

ARAMOTZ • EKAITZ HERRERA

Estitxu Isasti Gil (Iurreta, 1972) eta Txema Bilbao Abaunza (Durango, 1961) Askatasun Etorbideko eta Aramotzeko bizilagunak dira, hurrenez hurren. Bertako auzo elkartekoak dira, Herria auzo elkartekoak.

"TAO berriari buruzko iritziak desberdinak izan daitezke bizi zaren inguruaren arabera"

TAO sistemaren zonifikazio berriak Aramotz, Otamotzena, Askatasun Etorbidea eta Alluitz kalea autoz bete daitezkeela iritziak, bizilagun batzuek TAO sistema auzora zabaltzea gura dute. Baina beste bizilagun batzuk ez daude horregaz ados

Zelan hartu duzue auzoan TAO sistema berria?

Txema Bilbao: Ez da erraza iritzi trinko bat adieraztea. Gauza bat da norberak pentsatu dezakeena eta beste bat auzo elkartek adierazi dezakeena. Nik uste dut TAO sistemak ez duela berdin eragingo Aramotzen edo Askatasun Etorbidearen bueltan. Aramotzen ez dute uste arazo handirik egongo denik. Jende gehiagok aparkatuko duela? Ez dut uste. Nahiko urrun gaude. Adibide bat ipintzearen: Alde Zaharreko bizilagun bat hona etorriko da autoa gauez bertan aparkatuta uztera? Ez dut uste. Askatasun Etorbidean, oster, bestelakoa izan daiteke egoera. Nahiko beteta egoten da.

Estitxu Isasti: Asteon bilkura egin dugu Herria Auzo Elkarteak batzordea osatzen dugunon artean. Askotariko iritziak egon dira TAO sistema berriaren inguruan. Batzuek TAO sistema gura dute Aramotzen, horrek aparkatzeko aukera handiagoa eskainiko dielakoan.

Beste batzuentzat, oster, zentzuzko proposamena da. Herriaren kanpoaldean aparkaleku gehiago behar dela uste dute. Nire ustez, aparkaleku falta da arazoa. Egia esan, ezin dugu auzotar guztiak islatuko dituen iritzi bakar bat eman. Iritziak eta bizipenak desberdinak izan daitezke bizi zaren inguruaren arabera. Gu Aramotzeko parte zaharrean bizi gara, baina bizilagunen egoera desberdina izan daiteke Askatasun Etorbidearen inguruan edo Otamotzena inguruan. Nire iritzi pertsonala da Aramotzera bertara ere ailegatu daitezkeela aparkatzeko zailtasunak.

Fumbarri fundizioaren ondoan bada aparkaleku bat.

T.B.: Beteta egoten da, goraino. Iruditzen zait horrek erakusten duela aparkalekuak behar direla. Kanpokoak izan zein ez, jendeak egun osoarako uzten du hor autoa. Iluntzean libratzen da. Aparkalekua txiki geratu dela uste dut.

E.I.: Horrez gainera, autokarabaren



TAO berria dela eta, jende gehiagok aparkatuko duela Aramotzen? Ez dut uste

TXEMA BILBAO

kontua dago. Autokarabana asko han dago aparkatuta. Aparkatzeko eskubidea izango dute, baina ondo legoke horiei beste kokaleku bat ematea.

T.B.: Gero, badago beste kontu bat. Herri bat gara eta herrietan beste modu batera ikusten da kontua.

Bilbo batean egon daitezkeen problematika eta hemengo desberdinak dira. Itzelak gara gero! Etxe parean gura dugu autoa. Baina zenbat dago Aramotzetik Kurutzia gara oinez? Ez dago ezer. Baina segun eta zeini galdetzen diozun, iritzi bat edo beste bat izango duzu. Gatxa da.

“TAO berriagaz, Muruetatorre auzoan hobekuntza igarriko dugulakoan gaude”

Neurria gustuko ez duen "baten bat" kenduta, Muruetatorre Auzo Elkarteak uste du TAO berriak on egingo diola auzoari



MURUETATORRE • EKAITZ HERRERA

Jesús Miguel García Redondo 'Txutxi' (Durango, 1968) eta Pello Horrillo Valor (Durango, 1969) Muruetatorre Auzo Elkarteak kideak dira. TAO zerbitzua auzora zabaltzea begi onez ikusten dute.

TAO zerbitzua zuen auzora zabalduko da irailaren 26tik aurrera. Zelan hartu duzue berrikuntza?

Jesús Miguel García: Iruditzen zait auzotarrak gogotsu eta pozik daudela. Beti egongo da neurria gustuko ez duen baten bat, baina,

orokorrean, jendea animatuta dagoela esango nuke. Izan ere, errekadu bat egitera autoa hartuta irten behar baduzu, birritan pentsatu behar duzu, bueltan oso posible delako lekurik ez topatzea. Bueltaka eta bueltaka ibili

zaitezke auzoan zehar, lekurik topatu ezinik.

Pello Horrillo: Uste dut auzoan hobekuntza igarriko dugula. Asteburuetan aparkatzeko lekua egon izanda, Landakoko osasun zentroaren inguruan, batez ere. Horrek zer esan gura du? Aste barruan inguruotan aparkatzen dutenak ez direla auzotarrak. Autoekin egon daitekeen errotazioak on egingo digula uste dugu.

Zelako egoerak topatzen dituzue aparkatzerako orduan?

P.H.: Durangora lanera etortzen den jende askok inguru honetan aparkatu izan du. Goizeko lehenengo orduan, auzoko jendea lanera kanpora doanean, hona datorrenak badu aparkalekua. Baina zer gertatzen da gero? 19:00etatik aurrera aparkatzea ezinezkoa dela. Jendeak ez du autoa gauera arte mugitzen. Horrez gainera, kirol instalazioak hemen inguruan ditugula kontuan hartu behar da.

J.M.G.: Nik ulertzen dut bakoitzak bere beharrianak izatea. Baina elkarteak auzoari eta bizilagunei erreparatu behar die, eta horregaitik eskatu genuen TAO zerbitzua hona zabaltzea.

Elkarteko kideok TAO zerbitzua auzora zabaltzea zedin eskatu genuen. Urte bi izango dira eskari hori egin genuela

JESÚS MIGUEL GARCÍA

Izan ere, Durangoko Udalak dioenez, TAO zerbitzua Muruetatorrerara zabaltzea auzotarren eskaria izan da.

J.M.G.: Bai, Muruetatorre Auzo Elkarteak kideok TAO zerbitzua auzora zabaltzea zedin eskatu genuen. Urte bi izango dira eskari hori egin genuela. Egoiliar txartelak 60 euro balio ditu eta aparkatzeko aukera gehiago izan dezakegulakoan gaude. Denborak esango du arazoa konpontzen den ala ez. Konpontzen ez bada, beste soluzio batzuk topatu beharko dira.

Inkesta



ANDONI
CORRAL
San Rokeko bizilaguna

Ni TAO berrituaren kontra nago. Garajea dut eta, normalean, ez dut aparkatzeko arazorik. Orain urte bitik hona, Aramotz inguruan eta batez ere hemen dagoen aparkalekuan [Fumbarri ondokoa] geroago eta kotxe gehiago dagoela igarri dut. Hala ere, tokia badagoela uste dut. Egunen batean OTA honaino zabalduko balitz, txarto irudituko litzaidake.



EDURNE
EZPELETA
San Rokeko bizilaguna

TAO berritua eta bere ondorioak ez ditut sakonean eza-gutzen, baina ona izan daitekeela uste dut. Durangoko beste tokiei buruz ezin dut ezer esan, baina Aramotzeko eta inguruko aparkalekuetan egoten da lekua aparkatzeko. Beraz, ez dut uste oraingoz hemen ezereen beharrik dagoenik. Etorkizunean ikusi egin beharko da egoera zelan dagoen.



KARMELO
INTXAUSTI
Ibaizabal auzoko bizilaguna

Ondo ikusten dut TAO berritua. Ezin izan dut egundo ere etxe inguruan aparkatu, sartu-irten arin baterako ere ez. Kotxea garajeen sartzera derrigortuta egon naiz. Sarritan zoramena izaten da, jendea bigarren ilaran zain, baten bat noiz irtengo. Eta, inoiz, leku horretan aparkatzeko zain egon denari, beste batek lekua kendu. Haserreak eragin izan ditu eta udaltzaingoa ere etorri izan da.



NAGORE
CIRUELOS
Landakoko bizilaguna

TAO zabaltzeari txarto deritzot. Egoiliar txartela egin dezakegu, merkeago irteteko, baina ordaindu behar izatearen beraren kontra nago. Ordu jakin batzuetan gatxa da Landakon aparkatzea. Nik kanpoan aparkatzen dut eta oinez joaten naiz etxera. Alternatiba egokiago bat Traña-Matienan egiten dena litzakete. Han, zonalde batzuetan, ordubetez bakarrik utzi daiteke kotxea, baina ez dago ordaindu beharrik.



ANA
LASAS
Muruetatorreko bizilaguna

Nik ez dut gidatzen, baina nire iritiz ez da bidezkoa Durango TAOaz betetzea. Guk garajea daukagu eta ez dugu arazorik bizi garen tokian aparkatzeko, baina senitartekoren bat edo lagunen bat badator ez dakit noraino joan beharko duen aparkatzera denean TAOa ipintzen badute. Landako Guneko aparkalekuan, beharbada? Hala ere, gehiegizkoa iruditzen zait.



CARLOS
ALBERDI
Madalena auzoko bizilaguna

Madalena bizi naiz eta, garajea dudanez, neurri berriak ez dit bereziki eragiten, baina kanpotik datorrenarentzat onuragarria dela uste dut. Erosketak egitera datozean, TAOagaz egongo da non aparkatu. TAOrik ez balego ez lukete lekurik aurkituko. Ni zaldibartarra naiz eta Zaldibarko jendeak behin baino gehiagotan komentatu dit TAOa onuragarria dela eurentzat.

Aspaldiko ohitura berreskuratuta, goitibeheren jaitsiera egingo dute Durangoko jaietan

Goitibeherek Eguzkitzatik Intxaurren kalerako jaitsiera egingo dute, urriaren 15ean



Goitibeheren jaitsiera proba bat, Zaldibarren.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko jaietan, aspaldi galduriko jarduera bat berreskuratuko dute aurten: goitibeheren jaitsiera. Ekitaldia urriaren 15ean egingo dute, Euskal Herriko Inertzia Kiroren Federazioagaz (EHIKF) lan-kidetzan. Ibilbideak 500 metroko luzera izango du eta partaideek Eguzkitza auzotik irtengo dute, Okarantza baserriaren paretik. Helmuga Tabira aldean izango da, Intxaurren kalean. Lasterketak askotariko kategoriak izango ditu: Neumatika, Arinak, Drift Bike eta Errodamentuzkoena. Kategoria bakoitzeko adibideak eta arauak www.ehikf.eus orrialdean kontsultatu daitezke. Egun horretan bertan, 11:00etan, umeei zuzenduriko goitibehera tailerra egingo da Intxaurren kalean.



Merina Gris. @EKHI.ALDE

Merina Gris, Vulk, J Martina eta Konorte, Durangoko txosnetan

Apurka-apurka hasi dira Durangoko jaietako egitarauari buruzko xehetasunak azalartzen. Txosna Batzordeak bertan joko duten musika taldeen berri eman du asteon. Honako hauek izango dira artistak: Konorte, Parkatu, Penny Fleck eta Laru, Vulk, Añube, Los Zopi-

lotes Txirriaos, Hija del Nopal, DJ Txillardegui, Peio eta Itsua, J Martina, Merina Gris, DJ Reimy eta Beñat eta Maixa. Aurten ere Landako Gunearen eta Plateruenaren arteko eremuan ipiniko dute txosnagunea. Ekitaldiak urriaren 11tik 23ra egingo dituzte.

Mugikortasun jasangarriago bat lantzeko jarduerak egingo dituzte, zapatuan, Durangon

Durangoko Udalak eta herriko elkarteek egitaraua prestatu dute Mugikortasunaren Europako Astea dela eta. Kontzientziazioa lantzeko jokoak eta ekitaldiak egingo dira

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak eta herriko elkarteek egitaraua prestatu dute Mugikortasunaren Europako Astea dela eta. Jose Migel Barandiaran kalean zeramika tailerrak, joko tradizionalak, txirrindularientzako eskulan tailerrak, eta xake eta Paint Bike tailerrak egingo dira. Bestalde, Zumalakarregi kalean *Gurpil Gainean* izeneko gunea atonduko dute. Besteak beste, bidegorrietatik bizikletan ibiltzeko hiru irteera egingo dituzte, 12:00etan, 13:00etan eta 14:00etan. Bizikleta zirkuitu bat ere ipiniko dute bertan. Bizikleta denda eta bizikletak mantentzeko tailer bat ere egingo dira. Baita skate tailer bat eta herri

banaketarako bizikleta zerbitzua ere. Azkenik, Aitziber Garmendia eta Telmo Irureta aktoreek *Sexberdinak* antzezlan egingo dute, datorren barikuan, 20:00etan, San Agustin Kultur Gunean. Egitarauan parte hartu duten elkar-

teetariko batzuk Atik Skatepark, Stop Bide Indarkeria, Durango MTB Sapubike, Dukerami, Hazi Hezkuntza, Larrasoloeta Xake Taldea, Basati, Berbaro, Dendak Bai, Decatlon, *Txita.com* eta Inurri Eskaut Taldea dira.



Durangoko Udaleko ordezkariak eta elkarteetako kideak.

Andraguneak ikastaroen eskaintza berria aurkeztu du

Lodifobia, genero arrakala, migrazioa, autodefentsa feminista eta dolua landuko dituzte, besteak beste

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hartu-eman toxikoak eta osasuntsuak identifikatzeko lantegiak, pribilegioei eta interseksionalitateari buruz hausnartzekoak, lodifobia, autodefentsa feminista, Wikiemakumeak zein emakume migrazaileentzako ikastaroa. Duran-

goko Andraguneak ikasturte honetako jarduerak aurkeztu ditu. Ikastaroetan izena eman gura duenak Andragunera bertara, 944657092 telefonora edo andragunea@durango.eus helbidera jo dezake. Ikastaroek aurrera egiteko, zortziko taldeak osatu beharko dira gutxienez.



Martxoaren 8a aldarrikatzeko mural bat, Durangon.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko irailaren 16a
20. urtea - 905. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ainhoa Ordorika Alegria 2012an hasi zen Durangoko ELAren egoitzan lanean, bertako zerbitzu juridikoetan. Orain Bidelagun fundazioko abokatuetariko bat da.

Lan gaixotasunei begirako aholkularitza ematen hasi zarete. Zein beharri-zen ikusi duzue zerbitzu espezifiko hori eskaintzeko?

Ikusi genuen enpresetan gabeziak zeudela lan osasuna lantzeko. Batzuetan, ohiko zerbitzu juridikoak ez ziren lan esparru hori ondo jorratzera ailegaten. Amiantoak, silizea, oso prozesu luzeak dira, teknikoak. Eta ikusi genuen zerbitzu espezializatu bat beharrezkoa zela lan osasunari garrantzia emateko. Izan ere, geroago eta garrantzi handiagoa du, oso esparru zabala delako. Eta guk ahalik eta esparrurik handiena landu gura dugu, lan gaixotasun bat duen behargina errekonozitzeko batetik, eta lan gaixotasunagaitik hil den beharginaren familiari kalte ordaina emateko bestetik.

Zeintzuk dira lan gaixotasunik ohikoena?

Amiantoari eta silizeari loturikoak dira kasurik ezagunenak; hilgarriak direlako, hain zuzen ere. Baina ohikoena beste batzuk dira. Gaixotasun muskuluesketikoak, adibidez. Tendinitis bat, karpoko kanalaren sindromea, lanean mugimendu errepikakorrek egi-teagaitik eratorritakoak. Bestalde, arrisku psikosozialak ere hor daude. Antsietatea, lan karga desegokiari loturiko arazo emozionalak, adibidez. Bulego lanetan baja asko

"Uste dugu datozen urteetan gaixotasun asko azaleratuko dela amiantoagaitik Durangaldean"

ELA sindikatuak 'Bidelagun' sortu du, lan osasunagaitik gaixoturiko beharginei eta haien familiei laguntzeko fundazio berria. Fundazioak aholkularitza juridikoa eskaintzen du lan osasunagaitik gaixoturiko beharginak errekonozitzeko

ikusten dugu emozionalki oso txarto egoteagaitik. Batzuetan, enpresak gauzak ondo ez daudela jakin arren, ez ditu neurriak hartzen.

Zeintzuk dira lanetik eratorritakoak diren gaixotasunak errekonozitzeko topatzen dituzuen zailtasunak?

Frogatzea, horixe da gatzena. Eta zein arazo dugu enpresa guztiakin? Hauxe: enpresek plataforma bat dute lan istripu bat izan dela jakinarazteko. Eta jakinarazpen horretan markatu egin behar dute zein den istripuaren larritasun maila. Hiru aukera dituzte: arina, larria eta oso larria. Larria edo oso larria den kasuetan, Osalaneko teknikariak lan-tegitik pasatzen dira. Txosten bat egiten dute gertaturikoagaz. Argazkiak ateratzen dituzte, Ertzaintza jakinarenean gainean dago, ikerketa hasten da. Baina istripu arina bada, ez. Horrenbestez, ikusten duguna da lan istripu oso larriak arinak balira lez komunikatzen direla. Eta, kasu horietan, Osalaneko teknikaririk ez doanez, ez dago ez txostenik, ez argazkirik, ez frogarik.

Izan da halako kasurik Durangaldean? Bai, Iurretako fundizio batean, 2018an. Langileari burdinurtua jausi zitzaion gainera. Erredurak izan zituen, gorputzaren %60an. Gurutzetako ospitalera eramane zuten, erredura handien unitatera.



Ainhoa Ordorika Alegria

Bidelagun fundazioko abokatua

BERMEO | 1983

Enpresak istripu arin lez komunikatu zuen lan istripua eta Osalan ez zen gertaturikoaren gainean egon. Aurten izan dugu epaiketa. Akordio batera ailegatu gara enpresagaz.

Ohikoa da horrelakoak gertatzea?

Bai, ohikoa da. **Durangaldean ere bai?** Euskal Herri guztian, Durangaldean ere bai. Inork ere ez du jarraipenik egiten lan istripuak ondo komunikatzen ote diren jakiteko.

Gainera, ez dago ez elango isunik gertaturiko txarto komunikatzeagaitik. Ez dago txostenik, eta gatz da frogatzea. Lekukoak behar dituzu eta, askotan, lekuko izan diren beharginak beldur dira parte emateko.

Amiantoagaz eta silizeagaz loturiko lan gaixotasunek zein bolumen dute Durangaldean?

Amianto arnasteagaitik izandako ondorioak 35-40 urtera hasten dira

igartzen. Horregaitik uste dugu 70eko 80ko eta 90eko hamarkadetan amiantoagaz lan egin zuten langile askok orain izango dutela diagnostikoa. Durangaldean industriaren presentzia handia dagoela ikusita, uste dugu datozen urteetan kasu asko azaleratuko dela, nahiz eta gaur egun amiantoaren erabilera debekatuta egon. Silizearen kasuan, oraindik ere erabili egiten da enpresetan.

Eskolako balioak islatuko dituen abestia sortuko dute Zabalarran, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Zabalarrako guraso elkarteak eta eskolako komunitateak ekimen berri bat hasi dute: euskara ardatz dutela, eskolako kideen artean ezaguna den eta kamiseta berdeak barneratzen dituen balioak eta

sentipenak (Korrikan parte hartzea, eskolan sukaldea lortzeko borroka, Euskal Herria ezagutzeko txangoak...) islatuko dituen abesti bat sortzea. "Hurrengo hiletan makina bat ekintza egingo dugu helburu hori lortzeko asmoagaz,

eta, bide batez, aukera itzela izango da euskarari bultzada bat emateko eta hartu-emanak sendotzeko", adierazi dute Zabalarratik. Gainera, prozesu honetan bidelagun izango dituzte Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunak. Ibilbide honi hasiera emateko, irailaren 23an jaialdi bat egingo dute. Egun horretan egingo den zozketarako errifak salgai daudela aurreratu dute. Eguneko egitaraua anboto.org atarian kontsultatu daiteke.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa

55. Euskal Herriko Artzain Txakur txapelketa Axpen jokatu da, zapatuan

Lehiaketa 17:00etan hasiko da, eta, guztira, 12 txakur eta 11 artzain arituko dira Axpeko landetan

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irailaren 17an, zapatuan, 55. Euskal Herriko ardi txakurren txapelketa jokatu da, Atxondon. 17:00etan hasita, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako txapelketetako artzain txakur txapeldun eta txapeldunordeak

lehiatuko dira, Axpeko eliza osteko zelaietan.

55. edizio honetan, 12 txakur eta 11 artzainek parte hartuko dute guztira, eta euren artean Kepa Ardanza abadiñarra izango da, Urbi txakurragaz. Ardanzagaz batera, honako hauek ere parte

hartuko dute: Enrique Mendigurenek Laia txakurragaz, Angel Barronek Jairegaz, Jose Maria Jauregik Negu eta Sua txakurrekin, Oihan Basterrak Lau txakurragaz, Javier Zubiaurrek Mendigaz, Jose Maria Bengoak Ederregaz, Aitor Tatok Txatogaz, Antonio Alustizak Ttikigaz, Jorge Oteizak Lagunegaz eta Jesus Raskinek Mendigaz.

Berriro Axpen

Iazko edizioa, 54. Euskal Herriko ardi txakurren txapelketa, Gaurain jokatu zuten, baina aurten berriro ere Axpen egingo dute. Atxondoko Udalak antolatzen du txapelketa eta babesle hauek ditu: Gerediaga Elkartea, EHATE Euskal Herriko Artzain Txakurren Elkartea, ATX Azpi Elkartea, Urkiola Landa Garapenerako elkartea eta Durangaldeko Mankomunitatea.



Aurreko edizio bateko argazkia.

Abadiñon, Aitte Kurutzeko jaietan, pijama eta kamisoi eguna izango dute gaur

Jai Batzordeko kideek hainbat ekintza antolatu dute zapatarako eta domekarako ere



Aurreko edizio bateko pijama eta kamisoi eguneko argazki bat.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martitzenetik, Donien Atxa jaso zutenetik, Aitte Kurutzeko jaietan murgilduta daude Zelaietan. Gaur, barikua, pijama eta kamisoi eguna ospatuko dute. Parrillada batez hasiko dira, 20:00etan. 20:30ean, Lotxo taldearen erromeria izango da eta, gauerdian hasita, DJ Izarok ipiniko du musika. Urtero lez, umeen eta nagusien patata dantzak egongo dira.

Zapaturako eta domekarako ere hainbat ekintza antolatu dute. Zapatuan, esaterako, tailerak eta puzgarriak egongo dira umeentzat. Baita tortila txapelketa ere.

Domekan, Urkiolara bizikletan igoera, 'maleta siku' bazkari herrikoa eta Mugi Panderoa erromeria egongo dira.

Elorrioko Udalak osasun sistema publikoa indartzea eskatu du

Mozioa EH Bilduren aldeko botoagaz eta alkatearen kalitatezko botoagaz onartu zuten. EAJk aurka bozkatu zuen

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken osoko bilkuran, Elorrioko EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen Osakidetza anbulatorioak ixtearen eta Durangaldean zerbitzuak murriztearen kontra egiteko eta osasun sistema publikoa indartzea eskatzeko. "Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak harturiko erabakien ondorioz, egoera enkstatuta dago, eta Elorrioko eta inguruko herrietako osasun zerbitzuek horren kalteak jasan dituzte", adierazi du Idoia Buruaga alkateak. Hori horrela, udalak mozioa onartu zuen osasun siste-

ma publikoak urte osoan zehar zerbitzuak eskaini ditzala exijitzeko Eusko Jaurlaritzari; EH Bilduren eta alkatearen kalitatezko botoagaz atera zuten aurrera mozioa. EAJk aurka bozkatu zuen, eta Herriaren Eskubideko zinegotzia ez zen udalbatzan egon.

Horrez gainera, herriko osasun zentroan pediatriako eguneroko zerbitzua familia guztiei bermatzea, ginekologia zerbitzua berreskuratzea eta emaginaren eguneroko zerbitzua bermatzea ere eskatu dizkiote Jaurlaritzari.



Elorrioko Osasun Zentroko argazkia.

Mendi istripuetan hildako mendizaleak gogoan, Besaiden

Elorrioko Erdella Mendizale Taldeak antolatu duen ekitaldia domekan izango da, irailaren 18an

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

1955etik, mendi istripuetan hildako mendizaleak omentzen dituzte, urtero, Besaiden. Aurten, Elorrioko Erdella Mendizale taldeari egokitu zaio Besaide Eguna antolatzea. Elorriarrek 8:30ean irtengo dute, herri-

ko plazatik, eta Besaidera igozko dira. 10:30ean txistulariak eta txalaparta egongo dira eta, gero, oroimen ekitaldi zibila. 11:30ean taldeko presidentek berba egingo du eta 12:00etan dantzariak eta txistulariak egongo dira.



Besaide mendia.

aek

euskara praktikoa

EUSKARA

IKASTEKO BIDELAGUN ONENA



Zatoz AEKra

Euskalduntze maila guztiak (A1,A2, B1, B2,C1)

4. maila (C2)

Online ikastaroak

Autoikaskuntza (tutoretzatan oinarrituta)

Durango, Santanoste 4, behea · 94 681 73 49/607 159 205 · abarrak@aek.eus

Elorrio /Atxondo, San Juan 23, behea · 607 600 901 · abizari@aek.eus

Zornotza, San Pedro 3, behea · 607 151 917 · zornotza@aek.eus

**Berriz / Zaldibar / Abadiño / Iurreta / Izurtza / Mañaria
662 966 827 · durangaldekoak@aek.eus**

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA: mailaren bat egiaztatuz gero

UDAL GUZTIEK

Otxandion, Mainondoko kiroldegia urriaren 3an zabalduko dute, astelehenez, gimnasio berriagaz eta askotariko ikastaroekin

Gimnasioan makina mota nagusi bi daude: kardioa lantzekoak (eliptikak, spinning bizikletak...) eta indarra lantzekoak (presio-bankua, uhalen kaiola...)



Otxandioko pilotalekuaren azpian dago gune berria.

eta antzerako osagai gehiago ere baditu gimnasioak.

Ikastaroen gela

Bigarren gela nagusian ikastaroak egiten dituzte eta izen-ematea irailaren 26ra arte egin daiteke, Otxandioko udaletxean. Bazkide direnek deskontuak izango dituzte ikastaroetan.

Ikastaroak urritik maiatzera izango dira. Astelehenetan eta eguaztenetan, punp, txirrinbike, yoga eta mindfulness ikastaroak emango dituzte. Martitzenetan eta eguenetan, helduen soinketa, entrenamendu funtzional eta pilates ikastaroak emango dituzte. Helduentzako zumba edo stepa gurago duenak martitzenetan eta barikuetan izango du horretarako aukera. Ikastarorik gehienak hilean 20 euro dira bazkideentzat, eta 32 bazkide ez direnentzat. Azkenik, ume eta gazteentzako zumba ikastaroak ere izango dira, asteko egun batean. Hauek 15 euro dira hilabeteko.

Gune batean aldagelak daude, dutxa eta guzti. Irogailu bat ere badago.

Gimnasioko kudeatzaileak Otxandioko plazan egongo dira, gaur eta domeka arratsaldean, herritarren zalantzak argitzeko.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandiok kiroldegi berria estreinatuko du urriaren 3tik aurrera. Gela nagusi bi izango ditu jardueretarako: ikastaroen gela eta gimnasioa. Azpiegitura osoa Mainondoko Kirol Elkartek eta Otxandioko Udalak elkarlanean kudeatuko du-

te. Gimnasioa nobedadea da. Lehenengo zabalduko ditu ateak, datoren hile hasieratik aurrera. Urte osoan zehar, 06:00etatik 21:00etara egongo da zabalik, eta bazkide egin beharra dago erabili ahal izateko. Urte osoko bazkidetzatza 80 euro da. Bazkideak txartel bat jasoko du

eta horregaz zabalduko du atea. Izen-ematea hasita dago eta udaletxean egin daiteke.

Gimnasioko makinak

Gimnasioan makina mota nagusi bi daude. Alde batetik, kardioa lantzeko balio dutenak: eliptika

bi, korrika egiteko makina bi, hiru bizikleta estatiko, spinning bizikleta bi, arrauna, stepa eta gehiago. Bestetik, indarra lantzeko makinak daude: presio-bankua, pisu-bankua, uhalen kaiola... Horregaz batera boxeo zakua, kettlebell deritzon pisua

Mañariarrek izena eman dezakete ikasturte honetako kirol ekintzetan

MAÑARIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mañariko Udalak 2022-2023 ikasturteko kirol eskaintzen berri eman du. Ikasturte honetarako, adin guztietarako kirol eskaintza antolatu dute. Hauek dira aurten Mañarian egongo diren ikastaroetariko batzuk: zumba 4tik 6 urtera bitarteko gaztetxoentzat, multiekintzak 7tik 13 urtera artekoentzat, multiekintzak helduentzat, hipopilates, mantentze-gimnasia, strong-zumba, yoga eta stretching, besteak beste.

Izen-ematea

Izena ematea beharrezkoa izango da ikastaro hauetan parte hartzeko. Irailaren 23ra arte egin daiteke, Mañariko udaletxean zein liburutegian.

Izurtzako Gertufest jaialdiak aurreikuspenak gainditu ditu, antolatzaileen esanetan

Lehenengo aldia izateko, jende dezente batu zen Santo Tomas parkean



Jaialdiko osagaietariko bat umeen jolasak izan ziren.

IZURTZA • J.D.

Joan zen asteko barikuan Gertufest jaialdia egin zuten Izurtzako jaien barruan. Santo Tomas parkearen luze-zabalean diziplina askotako ikuskizunak, artisauen postuak eta umeentzako jolasak izan ziren, besteak beste. Lehenengo aldia zenez, jendearen erantzuna ikusteko zegoen, baina, eguraldia lagun, jende dezente batu zen. "Ezin gara poza go egon", dio Cecilia Paganinik, ekimeneko antolatzaileetariko batek. "Gure aurreikuspenik onenak gainditu zituen", gehitu du. Udalean ere gustura daude. "Oso ondo irten zen eta sentsazio polita utzi du jendearengan. Gainera, adin guztietako jendea batu zen", azaldu du Lorea Muñoz alkateak.

Ioritz eta Karmele Gisasolak Euskal Pentatloi Sariko finala lehiatuko dute

PENTATLOIA • J.D.

Irailaren 24an Euskal Pentatloi saria lehiatuko dute Azpeitiko zeren plazan, eta Durangaldeak ordezkari bi izango ditu: Ioritz eta Karmele Gisasola lehengusuak. Gizonetan, Ioritzek kanporaketa bi gainditu ditu finalera heltzeko. Iaz, Jon Gisasola lehengusuagaz batera, binakako txapelketako azpitxapeldun geratu zen, eta, aurten, estreinaldia izan du buruz burukoan. "Finalean sartzea itzela da eta nire helburua beteta dago. Lan ona egiten ahaleginduko naiz", adierazi du.

Emakumeetan, Karmele Gisasolak iazko lehen aldian irabazitako txapela defendatuko du. Nerea Arruti eta Lucia Orbe izango ditu aurkari.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

Ekainetik irailera bitartean, 25.000 Amorebono erabili dituzte Zornotzako establezimenduetan, zirkulazioan ipinitako bonuen %80

Zornotzako Udalak gogoratu du urriaren 16tik aurrera erosten diren Amorebonoak abenduaren 15era arte trukatu ahal izango direla komertzioetan



Askotariko establezimenduak Sabino Arana kalean.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udala "oso pozik" dago 2022ko Amorebonoen kanpaina izaten ari den harreragaz. Ekainean 32.000 Amorebono ipini zituzten zirkulazioan, eta ordutik hona 25.000 trukatu dituzte herriko komertzioetan, kaleraturiko bonuen %80. Esti Martiartu Zornotzako Ekonomia Sustapen eta Enplegu zinegotziak adierazi duenez, "Amorebonoen erabilerak aurrezpena dakarkie herritarrei, eta, era berean, bultzada handia Zornotzako merkataritza eta ostalaritza sektoreari".

Udalak gogorarazi du Amorebonoek hile biko erabilera epea dutela, txartela erosten den momentutik. Denbora tarte horretan trukatzeko ez diren bonuek berriro ere zirkulaziora irteten dute.

Urriaren 16tik aurrera eskuratzen diren bonuak abenduaren 15era arte egongo dira erabilgarri, kanpainaren azken egunera arte. Zornotzako Udalak oraindino erabili

"Bonuek aurrezpena dakarkie herritarrei, eta, era berean, bultzada handia komertzioei"

barik dauden bonuak eskuratzera animatu ditu herritarrek. Herritar bakoitzak hamaika bonu erosi ditzake. Lehen sektoreko erosketetarako bost, eta gainerako establezimenduetarako beste sei. Bonuak Zelaieta zentroko eta udaletxekeo kutzazainetan eskuratu daitezke.

Emakume sortzaileen azoka egingo dute, zapatuan, Iurretako plazan

Iurretako Auskari neska gazteen taldeak antolatutako azokan 51 euskal emakume sortzailearen artisaunak erakutsiko dituzte, 11:00etatik 14:30era bitartean

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Auskari neska gazteen taldeak antolatuta, Emakume Sortzaileen Azoka egingo dute, zapatuan, Aita San Migel plazan. Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Arabatik etorritako 51 emakume sortzailearen lanak ikusi eta erosteko aukera egongo da, 11:00etatik 14:30era bitartean. Horrez gainera, hiru otzara zozkatuko dituzte. Aurten, bigarren aldia izango du azokak.

Auskari taldeko ordezkariak ekitaldia egingo dute 12:00etan, eta, ondoren, 13:00etan, Iratik eta Nereak kontzertu akustikoa emango dute. Euria eginez gero azoka atzeratu egingo dela iragarri dute antolatzaileek.



Iaz antolatutako azokan ogia, garagardoa, bitxiak eta osagarriak ipini zituzten salgai.

Kultur tailer monografikoak egingo dituzte Iurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea kultur ikastaroetan eta Iurretako herri bibliotekan izango diren ekintzetan parte hartzeko. Kultur ardura-dunek azaldu dutenez, ia 30 diziplinatako 645 plaza eskainiko dituzte, "askotariko kolektiboak eta adin tarteei zuzenduta", eta ikastaroetan parte hartzerantz deitu dituzte herritarrek. Berrikuntza lez, tailer monografikoak laburrak emango dituzte.

Herritarren Arretarako Zerbitzuan apuntatu daiteke, irailaren 23ra arte. Herrian errolatu bakoek hilaren 21etik aurrera izango dute apuntatzeko aukera. Tarifak mantendu eta hobariak eskainiko dituzte.

Garaiko Nagusien Elkarteak txangoa egingo du Segurara

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Nagusien Elkarteak kideek Gipuzkoa aldera egingo dute txangoa, Goierriko Segura herrira, hain zuzen ere. Irailaren 24an egingo dute eta azpimarratu dute "gura duen guztiak" daukela bertan parte hartzeko aukera. Autobusak 9:30ean irtengo du, Garaiko plazatik. Behin Segurara ailegatu, 11:00etan, Ardixarra etxea eta herriko gune historikoa bisitatuko dituzte. Bazkaria Zerain herriko Mandioa tabernan egingo dute, 14:30ean. Txangoan izena eman gura duenak 695787439 zenbakian eman dezake izena. Elkarteak bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute. Gainerakoek, 30.



Durangaldean ostalaritzarekin, zerikusia duen negozioerik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian




AP-8ko beharginek mobilizazioak hasiko dituzte hitzarmena "egungo beharrianetara" egokitu dadin eskatzeko

Mobilizaziora deitu zuten eguenerako Zornotzako Zelaieta parkean. Enpresako zuzendaritzari "immobilismotik ateratzeko" eskatu diote

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Gesbisa enpresako beharginek, AP-8 autobidearen Bizkaiko tartea kudeatzeaz arduratzen diren enpresako langileek, mobilizazioei ekin diete berriro. Beharginek ohar batean adierazi dutenez, "immobilismotik ateratzeko" eta "hitzarmenaren negoziazioa egungo beharrian sozial eta laboraletara" mugatzeko eskatu diote enpresako zuzendaritzari. Gesbisa iaztik dabil Ermua eta Galdakao arteko autopista zatia Bizkaiko Foru Aldundiarentzat (Interbiak) kudeatzen. Kontsezio epea 2026an agortuko zaio. Hori dela eta, beharginek diote ezin dutela kontsezioa amaitu arte itxaron "dibidenduak akziodunekin banatu ondoren eskaintzen

dizkieten apurak batzeko". "Ezin dugu ulertu zelan erabili daitekeen diru publikoa horrelako kudeaketak bultzatzeko", gaineratu dute.

"Ezin dugu ulertu zelan erabili daitekeen diru publikoa horrelako kudeaketak bultzatzeko"

Gesbisako beharginek mobilizaziora deitu zuten eguenerako. Zornotzako Zelaieta parkean izango da, 18:30etik 19:30era. Aldarrikapenetan parte hartzera deitu zituzten beharginak. Maiatzean ere antzeko mobilizazioak egin zituzten Iurretan eta Boroan.



Aurreko mobilizazio bateko argazkia.

Umerri Eskola Aktiboak jardunaldiekin hasiko du bere 11. ikasturtea,

Berbaldiak eta ekintzak izango dituzte, bihar, Berrizen, egun osorako prestatu duten egitarauaren barruan



Umerri.

BERRIZ • JONE GUENETXEA

Umerrik jardunaldiak antolatu ditu zapatarako, bere 11. ikasturtea hasteko. "Jardunaldi hauen bitartez, gure esperientzia eta oinarriak partekatu gura ditugu hezkuntza arloan interesa duten guraso zein hezitzaileekin eta euren familiekin", azaldu dute Umerritik. Egun guztiko egitaraua prestatu dute. Berbaldiei dagokienez, Miguel de Castrok *El juego con las condiciones de la educación creadora* hitzaldia emango du. 12:00etan, *Euskara eskolan mahai-ingurua* egingo dute euskalgintzaren ikuspuntua eta Umerriren esperientzia partekatuta. Zorutik Guneak *Zer da jolasa eta mugimendu askea* berbaldia emango du, 12:30ean. Vega Martinek *Asistencia a las relaciones* hartuko du berbagai, 15:30ean.

Ekintzei dagokienez, Kontakids, yoga familiar, jolas librea naturan, natur ibilbide gidatua, ipuin kontalaria eta konfigurazio jolasa egongo dira. Izena eman behar da: labur.eus/umerrikojardunaldiak.

Jone Uria eta Aitor Mendiluze Zaldibarko Goierri auzoan

ZALDIBAR • J.G.

Zaldibarko Goierriko auzo etxean bertso afaria antolatu dute irailaren 23rako. Jone Uria eta Aitor Mendiluze bertsolariak arituko dira, 21:00etan. Txartelak Zaldibarko Castet, Sorgin, Negugogor, Karobi eta Paula tabernetan erosi

daitezkeela azaldu dute antolatzailuek.

Txartelak 20 euroan egongo dira salgai. Ikasle eta langabeek merkeago izango dute, 10 euro ordainduko dituzte. Irailaren 20a izango da azken eguna txartelak erosteko.

Zabalik dago euskara ikasleentzako laguntzak eskatzeko epea

ZALDIBAR • J.G.

Zaldibarko Udalak 5.000 euroko aurrekontua du 2021-22 ikasturtean helduen euskalduntze ikastaroetara joan diren herritarrei bekak emateko. Zaldibarren errolatuta dauden eta udal euskaltegiatako, euskaltegi pribatuetako

eta homologaturiko barnetegietako euskara ikastaroetara joaten diren denek jaso ahal izango dituzte. Eskabideak urriaren 31ra arte egin daitezke. Informazioa, udalaren webgunean eta Zaldibarko Euskara Zerbitzuan (94 682 70 16).

A. Urreta podólogo

R.P.S. 21/06

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

ESKOLA MATERIALA - ARTE EDERRAK - ILUSTRAZIOA - KALIGRAFIA - BULEGO MATERIALA

Folder DURANGO

2006-tik zurekin batera jartzen

Zumalakarregi 10. 48200 Durango-Bizkaia | www.folderdurango.com

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Gaur gauean amaituko da ANBOTOren argazki lehiaketan argazkiak ipintzeko aukera. Hala ere, lehiaketa ez da amaituko. Orain, argazki lehiaketa bozketa fasera pasatuko da. Bihartik aurrera eta irailaren 25era bitartean, herritarrek euren argazkirik gustukoena bozkatu ahal izango dituzte. Botoak emateko, www.anboto.org webgunean sartu beharko da.

ANBOTOren argazki lehiaketan lau irabazle egongo dira guztira, kategoria bakoitzeko bi. Irabazle bi publikoak aukeratu ditu, botoen bitartez. Beste biak epaimahaiak erabakiko ditu.

Sariak

Sariei dagokienez, lau egongo dira. Durangaldeko argazkirik onenak

ANBOTOren argazki lehiaketan botoa emateko aukera, bihartik aurrera

Irailaren 17tik 25era bitartean eman daiteke botoa, www.anboto.org webgunean

atalean, epaimahaiaren saria irabazten duenak bidaiatzeko maleta bat eskuratuko du, Euskal Herriko produktuez betea. Al Camporen eskutik. Durangaldetik kanpoko argazkirik onenak ere bidaiatzeko maleta bat eskuratuko du, baina Gourmet produktuekin betea. Publikoaren sariari dagokionez, Durangaldeko argazkirik bozkatuena egonaldi bat irabaziko du Garaiko landetxean. Durangaldetik kanpoko argazkirik bozkatuena Databostek emandako tablet bat eskuratuko du.



Aurtengo lehiaketara aurkezturiko argazki bat.

Politikan

Mireia Elkororibe
Zenikaonandia
EAJ



Durangoko etorkizuna?

Badakizue zer den Hiri Antolamenduko Plan Orokorra? Zertarako balio du eta nola eragiten dio Durangoren etorkizunari?

Urrutiko zerbait dirudien arren, nahi dugun hiri-eredua jasotzen duen eta eredu hori gauzatzeko irizpideak eta arauak ezartzen dituen dokumentu arauemailea da. Hau da, dokumentu honetan etorkizuneko Durangoren oinarriak eta hori gauzatzeko irizpideak ezartzen dira. Horrela, onartzen den HAPOren arabera, Durango dinamikoagoa, biziagoa eta erreferentzialagoa izan dezakegu, edo Durango itzalagoa bizitzeko, ikasteko edo lan egiteko.

Uztailaren amaieran etorkizuneko Durangoren helburuak eta irizpideak ezartzen dituen Aurrerapenaren dokumentua aurkeztu zen. Baina dokumentu horrek hainbat puntu kezkarri ditu. Adibidez, ez dago argi zein den planteatzen den udalerrir-eredua. Bestalde, ez da aprobetxatzen Trenbidearen Barne Eraldaketarako Plan Bereziak dakarren aukera handia, Ospitale berria, parke handia eta dagozkion etxebizitzak bertan kokatzeko edozein aukera ezabatuz. Horrez gain, Maristak-en hezkuntza-proiektu berria garatzeko aukera eten egiten da, nahiz eta alderdi politiko guztien babesa izan. Eta kirol-instalazioak handitzeko, udalaz gaindiko ekipamendu eta zerbitzu berriak erakartzeko eta jardura ekonomiko berriak ezartzeko aukera ere galtzen da.

Hau da, dokumentu horrek ez baitu Durango eskualdeburu izateko aukerarik ematen, ez eta zerbitzu edo jardura ekonomiko berriak garatzeko aukerarik ere. Horrek Durango gero eta itzaliago batera eramango gintuzke, bizitza eta jardura gutxiagorekin, lo egiteko eta paseatzeko zoragarri, baina beste ezertarako erakargarritasun gutxiarekin. Benetan hau al da nahi dugun Durango? Hau izango da Durangoko etorkizuna? Ekarpinak irailaren 30era arte aurkez ditzakegu udalaren webgunearen bidez.

Durangaldea asteen

Bihar, Otxandion, egitarau zabala egongo da kultur aniztasunaren eguna ospatzeko

OTXANDIO | Otxandioko Udalak eta Otxandio 11 Lore elkarteak egitaraua antolatu dute biharko, irailak 17, kultur aniztasunaren eguna ospatzeko. 12:00etan emango diote hasiera egunari, umeentzako ipuin kontalariagaz. Gero, 13:00etan, herrialde anitzeko jakien dastatzea egingo dute. Eta egitarauari amaiera emateko, 18:30ean, Senegalgo, Saharako eta Kolonbiako musika-riak egongo dira.

Abadiñoko EH Bildu: "Herriko kale garbiketaz arazo bat dugu"

ELORRIO | Abadiñoko EH Bilduk prentsa oharra kaleratu du herriko kale garbiketaren inguruan. "Abandonu sentsazioa dugu. Herrian argi ikusten da arazo bat dugula kale garbiketaz". Gainera, Zelaian eta Muntzaratzen abuztuaren hamabost eguneko ohiko kale garbiketa zerbitzurik barik egon direla salatzen dute.

Umeen eta helduen artean irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak martxan, Elorrioren

ELORRIO | Beste behin ere, Elorrioko liburutegiak umeen zein helduen artean irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak ipini ditu martxan. Irakurketa klubak urrian hasi eta abendura arte iraungo dute, eta beharrezkoa izango da aurretik izena ematea. Izen-ematea 94 603 20 32 zenbakira deituta edo liburutegi@elorrio.eus helbidera idatzita egin daiteke.



Iurretako Gaztetxearen lehenengo urteurrena ospatuko dute bihar, irailak 17

IURRETA | 2020ko urrian, urte luzez erabilerarik barik egondako abadetxeari bizi berri bat ematea erabaki zuen Iurreta Plazaratuk. Urtebetez eraikina atontzen egon eta gero, 2021eko irailaren 18an berriro zabaldu zuten Gaztetxea, egitarau zabal batez. Orain, urteurren hori ospatzeko, egitaraua antolatu dute Ijorretako Gazte Asanbladakoek. 19:30ean karropoteoan batuko dira, eta 22:00etan Zeker eta Burutik taldeek kontzertua emango dute. Horien ondoren, Pary & Tiza arituko dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

irailak 24 bizi BERRIZ Jaita

17:30

KALEJIRA KANTOIKO PLAZATIK

OLAKUETA PLAZAN

11:30 → 13:30

16:30 → 20:30

OLAKUETA PLAZARA

TIROLINA PRONTOITIK PLAZARA

KARTS

MUSIKA

informazio gehiago: www.berrikomerkataria.eus

[berrikomerkataria](https://www.facebook.com/berrikomerkataria) [berrikomerkataria](https://www.instagram.com/berrikomerkataria) [www.berrikomerkataria.eus](https://www.youtube.com/berrikomerkataria)

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1# MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA
Joseba Sarrionandia / Ares (Pamiela)

2# M, AMA, EME, UME
Erika Lagoma / Estixu Fernandez (Elkar)

3# AZKEN ETXEA
Aranxa Urretabizkaia (Pamiela)

4# BAR GLORIA
Nerea Ibarzabal (Susa)

5# ERMITAK BIDE, DURANGALDEA BIZI
Ramon Castillo / Ibon Murua (Alpino Tabira)



DIFERENTZIAK




TXIKITIK HANDIRA






















Ordenatu pinguino hauek txikitik handira.




DOMINOA



Marraztu dagokion kolorea lauki zurietan.



NOR DA NOR?



Lapur bat pastelak osten
dabil gure auzoan.
Auzokide bakoitzak
lapurraren ezaugarri bat
esan du.
Zein da lapurra?

- Adar bi dauzka
- Begi handi bi dauzka
- Ez dauka buztanik
- Hagin zorrotzak ditu
- lletsua da



'Hâmâikâ'

DANTZA Elorrio :: Irailak 16

Fikzioa eta errealitatea nahasten dituen dantza ikuskizuna Elorrioren

Cielo rasO dantza konpainiaren hamaika urteko sorkuntza ibilbidea nabarmentzen duen areto pieza bat da *Hâmâikâ*. Ikuskizun malgua da, eta desberdintasunari, generoari eta askatasunari gorazarre egiten die, konpainiak nabarmendu duen moduan. "Bortitza da koreografia lana, baina mintzaira horrek begirada jantzia eskatzen du eta zeuri eskerrak baino ezin da gertatu hori", argitu dute. Fikzioaren eta errealitatearen artean dabil *Hâmâikâ*, ez oso modu serioan. Eta, "fikzioa eta errealitatea nahasten direnean, magia sortzen da", dio dantza konpainiak.

Igor Calonge dantzari donostiarra 2010ean sorturiko Cielo rasO konpainiak Elorrioko Arriola antzokian aurkeztuko du *Hâmâikâ* dantza ikuskizuna, gaur, 20:00etan. Ainhoa Usandizaga, Emma Riba, David Candela eta Joan Ferré dantzariak igoko dira oholtzara, guztiak Calongeren zuzendaritzapean.

Irailaren 16an

ABADIÑO Aitte Kurutzekoak
Pijama eta kamisoi eguna:
Pilota partiduak, 17:30etan.
Parrillada, 20:00etan.

Lotxo, 20:30etan.
Umeen patata dantza, 17:30etan.

DJ Izaro, 00:00etan.
Nagusien patata dantza, 00:30etan.

Kulero eta galtzontzillo lasterketa, 03:00etan.

BERRIZ antzerkia
'Zirkus' (Malas Compañías), 16:30etan, Olakueta plazan.

ZALDIBAR antzerkia
'Mesede bat egitearren' (Trapu Zaharra konpainia), 18:00etan, udaletxeko plazan.

ZALDIBAR musika
Broken Brother's Brass Band, 19:00etan, udaletxeko plazan.

Irailaren 17an

ABADIÑO Aitte Kurutzekoak
Umeentzako tailerrak eta puzgarriak, 17:00etan.
Tortillen txapelketa, 20:00etan.

BERRIZ jardunaldia
Umerriko jardunaldiak: berbaldiak eta ekintzak, egun osoan zehar.

DURANGO aurkezpena
'Desmontando mentiras anticomunistas' liburuaren aurkezpena, 18:00etan, Liburunea liburudendan.

DURANGO jardunaldia
Mugikortasunaren Europako Astea: jolasak, tailerrak eta kultur ekitaldiak, goizean, Jose Migel Barandiaran kalean.
Gurpil gunea, Zumalakarregin.

DURANGO musika
Napimetal fest IV, Landako Gunean. Ateak 17:00etan irekiko dira.

IURRETA azoka
Emakume sortzaileen azoka, 11:00etatik 14:30era, plazan. Zuzeneko musika egongo da.

IURRETA urteurrena
Abadetxearen urteurrena. Karropoteoa, 19:30etan, herrigunetik.
Zeker + Burutik, 22:30etan. Ondoren, **Pary & Tiza**.

OTXANDIO jardunaldia
Kultur Aniztasuneko Eguna. Umeentzako ipuin kontalaria, 12:00etan.
Herialde anitzeko jakien dastatzea, 13:00etan.
Senegaleko, Saharako eta Kolonbiako musikariak, 18:30etan.

ZORNOTZA musika
Carmen Vela Quartet, 20:00etan, Bernagoitiko San Miguel elizan.

Irailaren 18an

ABADIÑO Aitte Kurutzekoak
Mozorro eguna. Gaia: Euskal Herriko jaiak.

Urkiolara igoera bizikletan, 08:30etan.
Txupinazoa, 12:00etan.
Malesta Siku, 14:00etan.
Mugi Panderoa erromeria taldea, 17:00etan.
Txopoa botatzea, 20:30etan.

ABADIÑO musika
Mice, 13:30etan, Amaraun Arte Fabrikan (Muntsaratz auzoa, 36).

DURANGO antzerkia
'Bidai on, amona Braulia' ikuskizuna, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

ZORNOTZA musika
'Viaje al barroco', 19:00etan, Dudeako San Migel elizan.

Irailaren 21ean

DURANGO berbaldia
'1936ko irailaren 25ean eta ondorengo egunetan gertatutakoak' berbaldia, 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Gerediaga elkarteak eta 1936 kultur elkarteak antolatuta.

Irailaren 23an

BERRIZ antzerkia
'Kimera' (La Banda Teatro zirku konpainia), 16:30etan, eskolako patioan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **La vida padre**
barikua 16: 18:30/21:00
zapatua 17: 17:00/19:15/21:30
domeka 18: 17:00/19:30
astelehena 19: 18:00 /20:15
martitzena 20: 18:00 /20:15
eguztena 21: 19:00

• **La invitación**
barikua 16: 18:30 /21:00
zapatua 17: 17:00/19:15/21:30
domeka 18: 17:00 /19:30
astelehena 19: 18:00 /20:15
martitzena 20: 18:00 /20:15
eguztena 21: 19:00

• **Ali & Ava**
barikua 16: 18:30
zapatua 17: 19:15
domeka 18: 19:30
astelehena 19: 18:00
martitzena 20: 18:00

• **Dragon Ball Super: Super Hero**
barikua 16: 21:00
zapatua 17: 17:00 / 21:30
domeka 18: 17:00

• **Siempre Alice**
eguztena 21: 19:00


:: Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Lunana: Un Yac en la escuela**
barikua 16: 20:00
zapatua 17: 20:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:00

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **El acusado**
barikua 16: 20:00
zapatua 17: 20:00
domeka 18: 20:00
astelehena 19: 20:15

• **DC Supermaskoten Liga**
zapatua 17: 17:00
domeka 18: 17:00



Irailaren 24an

OTXANDIO musika
Alos Quartet (Xabier Zeberio eta Francisco Herrero bibolinagaz, Lorena Nuñez biolagaz, Ivan Carmona biolontxeloagaz eta Ivan Alzate baxuagaz), 18:30etan, Mekoletan.

Irailaren 25era bitartean

DURANGO erakusketa
'Begizulo' erakusketa, Arte eta Historia museoa. Bideoa, argia eta pintura uztartzen dituen Ismael Iglesiasen artelanak.

Irailaren 30era bitartean

ZORNOTZA erakusketa
'Solo personal autorizado', Zelaieta Zentroan. Eduardo Martínez argazkilaria bilbotarraren argazkiak.

**UDAKO
8. ARGAZKI
LEHIAKETA**

 **anboto**

Eman zure botoa udako argazki lehiaketan

Bozkatu www.anboto.org webgunean
Irailaren 25ra arte

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK


databost
Informatika & Telekomunikazioak


Alcampo
DURANGO


Garaiko
Landetxea

MUSIKAGINTZA • ARITZ MALDONADO

Sarah (Irati Bilbao durangarra) da *Bidaia on, Amona Braulia!* ikuskizuneko protagonista. Amona Brauliaren egunerokoa irakurrita, hark Ameriketako Estatu Batuetan zehar egin zuen bidaia ekarriko du gogora. Braulia bateria-jotzailea zen eta, herrialdean zehar egin zuen bidaia gogoratuta, musika modernoaren historian murgilduko ditu ikusleak. "Musika klasikoari dago-kionez, gazteek eta nagusiagoek badute formakuntza bat, baina ez dute musika modernoa ezagutzen. Ume batek jarraitzeko moduko istorioa eskaini gura genuen, musika

Jazz doinuak eta honen historia hurrei eta gurasoei hurbiltzeko helburua du obrak

modernoaren historiaren zertzelada batzuekin, baina astun egin barik. Txukun geratu dela esango nuke", azaldu du Irati Bilbaok. Rakel Arbeloa (Braulia) ere musika irakaslea da, eta existitzen den hutsune hori betetzeko helburua azpimarratu du berak ere. "Eduki didaktikoagaz istorio bat kontatzen duen antzezlan da emaitza, eta zuzeneko musika ere badu bidaia hori girotzeko", borobildu du Arbeloak. Horrela, ikusleak dixiea, bluesa, gospelsa, swinga eta bebopa doinuak gozatuko ditu, besteak beste, New Orleanseko historian murgiltzeaz gainera. "Jazza haur eta gurasoei hurbiltzea genuen helburu, hasieratik, eta esango nuke asmatu dugula; izan ere, orain arte egindako emanaldiek oso harrera ona izan dute. Gainera, gurasoek esan digute oso gustura ikusi dutela".

Bidaia on, Amona Braulia Jazzbana Ensemble konpainiaren lehenengo lana da. 2021ean sortu zuten taldea eta emanaldi honetan Irati Bilbaok, Oskar Lakunzak (saxofoia eta pianoa), Iñigo Cuencak (tronpeta), Alvaro Zarzuclak (tronboia, helikioa eta pianoa), Aritz Luzuriagak (kontrabaxua, perkusioa eta gitarra) eta Rakel Arbeloak (bateria eta perkusioa) osatzen dute taldea.

"Erronka handia"

Taldekideek Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian ezagutu dute elkar, baina, musikatik aparte, beste dohain batzuk ere erakutsi behar izan dituzte. Bilbaok, adibidez, antzetzeko egin behar izan duen esfortzua azpimarratu du. "Emanaldi osoan oholta gainean nago, fisikoki exigentea da obra, baina ez hori bakarrik, izan ere, ni ez naiz antzezlea. Gustuko dut antzetztea, txikitatik, eta Karrika antzerki taldean aritutakoa naiz, aspaldi, baina honetarako berezi-

Irati Bilbao durangarra protagonista duen 'Bidaia on, amona Braulia', domekan, Durangon

Jazzbana Ensemble konpainiak domekan aurkeztuko du lana; emanaldia 18:00etan izango da, San Agustin kultur gunean



Jazzbana Ensemble. JOSE LUIS ITOIZ

ki prestatu behar izan naiz. Antzetztea izan da erronka nagusia", azaldu du musikari durangarrak.

Emakume erreferenteak

Jazzaren historia ezagutarazteaz gainera, emakume musikariei euren garrantzia aitortzea da Jazzbana Ensembleren beste helburuetariko bat. "Musika modernoan, beste hainbat alorretan lez, emakumeak gizonezkoak baino ezezagunagoak dira, baina egon, egon dira emakume musikagileak. Egia esan, abes-

Taldekideek Musikene Goi Mailako Musika Ikastegian ezagutu zuten elkar

lariak izan dira gehienak eta irudi horri ere buelta eman gura genion. Emakumezko pianista edo bateria-jotzaileak egon dira, baina ez dira hain ohikoak izan. Garrantzitsua da horrelako erreferenteak sortzea, jendeari arraro ez egiteko emakume bat bateria jotzen ikustea, adibidez", azaldu du Arbeloak. Bilbaok berak obra honetan lehenengoz hartu du tronpeta jendaurrean. "Bateria-jotzailea naiz eta sekula ere ez dut eduki erreferentzia emakumerik. Hori garrantzitsua da haurrentzat, baina baita nagusientzat ere, beste jende batek egiten duela ikusita norberak ere egitea posible dela ikusteko", argitu du.

Abendura birtartean

Bestalde, San Agustinek udazkeneko denboraldiari ekin zion egunean. Aroa Blanco durangarraren *Miss Spein* ikuskizuna izan da lehenengo. Abendura bitartean, beste hogeita bi emanaldi egingo dituzte bertan; dantza, antzerkia, zirkua

Abendura bitartean, hogeita bi emanaldi egongo dira kultur gunean

eta musika izango dira eta, besteak beste, Durangaldeko Maider Lopezek (Khortaira), Egoitz Etxebarriak (Amantra taldea) eta Ganso&Ciak euren proiektu berriak aurkeztuko dituzte. Anita Maravillasek eta Yllanak ere egingo dituzte emanaldiak.

Ismael Iglesiasen 'Begizulo' erakusketa ikusgai dago Arte eta Historia museoan

Ismael Iglesias artista durangarrak "ikusleari margoaren bitartez errealitatetik ihes egiteko aukera" eskaini gura dio *Begizulo* erakusketan; koronabirusak eragindako osasun pandemian zehar sortu dituen artelanak daude ikusgai Durangoko Arte eta Historia museoan. Lan horiez gainera, orain hogeita urte museoari dohaintzan emandako margo bat ere ikusi daiteke bertan. Margoekin eta argiekin bisitariak "ipuin" batean dagoela sentitzea ere bilatzen du. "Ipuina izan daiteke zoragarria, edo amesgaizto bat", argitu du Iglesiasek. Irailaren 25era arte egongo da ikusgai *Begizulo*. Horren ondoren, Jone Ertzillaren *E x 3* erakusketa egongo da ikusgai. Egile durangar biek Durangoko Sor(tzaileen)leku beka jaso dute proiektua aurrera eramanez ahal izateko.



Jone Ertzilla eta Ismael Iglesias lehenengo planoan.



Ezkerrean Unai Ormaetxea eta eskuman Iban Ibarretxe.

Iban Ibarretxe da 'Su txikitan' ipuin kontaketa hiru garren gonbidatua

Ipuin irakurketa irailaren 29an egingo da, Zelaieta zentroan, 19:00etan

IPUIN IRAKURKETA • A.M.

Zornotzako pertsona ezagunek ipuin bat sortu eta jendaurrean kontatzea da *Su Txikitan* programaren helburua. Iban Ibarretxe izango da hirugarren saioko protagonista. Bere ipuinaren ardatza txistua izango da eta instrumentu horren sorreran izango du abiapuntua. "Ipuina Izturitzeko koban dago girotua eta maisuki dago gureganatuta. Musika hizkuntzatik harilkatuta dago, eta balioak eta pedagogia ditu ardatz", azaldu du Ibarretxek. Ohikoa den moduan, Unai Ormaetxeak gidatuko du

solasaldia. Ipuinak 10 urtetik gorako gazteei daude zuzenduta eta irakurketaren osteko solasaldiak kontalaria ezagutzeko aukera ematen die bertaratutakoiei.

Iban Ibarretxe 1973ko urriaren 26an jaio zen eta Zornotzako Udazken eta Bermeoko (Bizkaia) Kankabara txistu taldeetako zuzendaria da; Santurtziko (Bizkaia) Itsas Alde txistu taldean silbotea ere jotzen du. Zornotzara Bilboko Juan Crisostomo Arriaga goi mailako kontserbatorioan lizentziatu zen txistu espezialitatean, eta egun irakaslea da Zornotzako Zubiaur

musika eskolan eta Bermeoko Jose Antonio Egia musika eskolan.

Hirugarren emanaldia

Irailaren 29koa *Su txikitan* saioaren hirugarren emanaldia izango da Zelaietako auditorioan. Aurretik, SD Amorebietako Mikel Zarrabeitia eta Pili Larruzea izan dira gonbidatuak; saio bi horiek Interneten daude ikusgai, Zornotzako Udalaren kanalean. Iban Ibarretxeren ipuina ere bertan egongo da ikusgai, urritik aurrera. Udalak 2021eko amaieran ipini zuen mar txan egitasmoa.

Micek kontzertua emango du Amaraun Arte Fabrikan

Emanaldia 13:30ean hasiko da; sarrerak 10 euroan erosi ahaliko dira aurretik, Abarketeruena tabernan

MUSIKA • A.M.

Urriaren 6an, MICEk *Lautada* diskoa kaleratuko du, bere ibilbideko bigarren lan luzea. Aurretik, domekan, Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan joko duten kontzertuan gozatu ahaliko dira bere abesti berriak zein betiko klasikoak. Emanaldia 13:30ean hasiko da, Muntzaratz auzoko 36.enean dagoen Amaraun Arte Fabrikan. Sarrerak aurretik Abarketeruena tabernan erosi ahaliko dira, 10 euroan.

Miren Narbaiza Martiartu musikari eibartarra da MICEren burua. Napoka Iria desegin eta gero, bakarkako ibilbideari ekin zion. Harrezkero, *Mice* lan luzea eta beste labor bat kaleratu ditu.

Bestalde, Amaraunek I. Maketa Lehiaketa antolatu du. Irailaren 18ra arte eman daiteke izena bertan parte hartzeko. Aukeraturiko taldeek kontzertua joko dute urriaren 7an, 8an eta 9an.



Mice.

Gai librea

Isilaraziak IX

Joan den domekan, hilak 11, urtero lez, Berriz 1936 Gogoratzen Kultur Elkarrekin ekitaldia egin zuen Berrizen, 1936ko estatu kolpe faxistari aurre egitearren kartzelan edo frontean hildako zein biktima izandako berriztarrak oroitzen eta goresteko. Urtero izaten naiz bertan, biktima horietako batzuk senideak nituelako eta gogoraztea delako historia ulertzeko modu bakarra.

Aurtengo ekitaldia berezia izan da, Berrizko sei emakume isilaraziei ahotza eman dietelako. Benetazko ahotza, bertso eta guzti. Ramona Uribeganeokari, Teodora Uribarriri (nire birramama), Niceta eta Sofia Ariznabarretari, Benantzi Etxanori eta Sabina Ibarrolazari.

Maite Arrizabalagak Durango 1936 Kultur Elkarrekin argitaratzen duen aldizkari batean idatzitako testua oinarri



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Museoa

izanda, bertso trama bat antolatu zuten, *Gutun bat Saturrarana*, eta Miren Amuriza eta Idoia Barceló izan ziren gai-jartzai-

Sei emakume hauek salaketa jaso zuten 1937an; zentzu handiegirik izan ez arren, kartzela zigorra jaso zuten

leak. Aritz Katarain, Nerea Ibarzabal, Irune Basagoiti eta Saioa Alkaiza izan ziren bertsolariak taula gainean. Lau emakume, dagoeneko ahotsik ez duten sei emakume berriztarrei ahotza jartzen. Benetan hunkigarria izan zen.

Berrizko sei emakume hauek salaketa bat jaso zuten 1937ko otsailean, zentzu handirik gabekoa izan bazen ere

(gorria izateagatik edo gorri baten emaztea izateagatik soilik) kartzela zigorra jaso zuten. Hasieran Bilboko kartzelan eta geroago Saturraranean kartzelan atxilotu zituzten. Bertan bizitakoak ez ditugu zehazki ezagutzen, beti bezala, emakumeen ahotsak zapalduak eta gutxietsiak izan direlako. 1940ko uztailaren 29an kaleratu zituzten. 2 urte eta 4 hilabetez amesgaizto baten protagonista izan ziren, inoiz ez zuten ulertu zergatik eraman zituzten hara.

Domekako bertso trama horretan, inoiz entzun ez ditugun sentimenduak, beldurrak, minak, zalantzak, banaketak eta izuak entzun genituen. Eskerrik asko posible egin zenuten guztioi. Inoiz ahotsik izan ez duten emakumeen ahoak gara gu, eta horregatik da hain garrantzitsua horrelako ekintzak egitea. Maite, Miren eta Idoia, beti eskertuko dizuet egindakoa.



Irati Martin Rodriguez

Eibar taldeko aurrelaria
DURANGO | 2003

“Eibarren aurtengo jokamoldea ondo datorkit, jokalaria azkarra naizelako”

laz Euskal Ligako golegile nagusia izan eta gero, Eibar futbol klubak lehenengo taldeko fitxa egin dio Irati Martini

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Landako eskolan eman zizkion lehenengo ostikadak baloiari. Handik Ezkurdi klubera igaro zen eta kadete adina zuenetik Eibarren dabil. Iaz sekulako denboraldia egin zuen Euskal Ligan, eta mailako golegile nagusia izan zen, 25 gol sartuta. Horrek lehenengo talderako atea zabaldu dio.

Lehenengo talderako saltoa eman duzu. Pozik zaude?

Oso pozik eta ilusionatuta nago. 19 urteagaz lehenengo taldeagaz fitxa izatea egundokoa da, baina erantzukizuna ere bai.

Iaz Euskal Ligako pitxitxia izan zinen. Zure ibilbideko denboraldirik onena izan zen?

Bai, fisikoki eta mentalki oso ondo egon nintzen. Astean hiru bider lehenengo taldeagaz entrenatzen nintzen, gora heltzea posible ikusten nuen eta "oraintxe estutu behar dut" esan nion neure buruari. Lehenengo taldean beste erritmo bat hartu nuen eta hori igarri egiten zen Euskal Ligako partiduetan.

Eibar lehen mailatik bigarrenera jaitsi zen iaz. Jokalari askok jarraitzen dute?

Ez. Lau-bost jokalarik berritu dute eta gainerakoak aurpegi berriak dira. Baina, apurka, lagun talde bat sortu dugu eta aurtan lan ona egin dezakegula uste dut.

Zelan joan da denboraldiaurrea taldearentzat?

Denboraldiaurrea gogorra izan da. Lehenengo mailako hainbat talderen kontra jokatu dugu eta aurpegia eman dugu. Bigarren mailakoei dagokienez, Coruñaiko Deportivoren kontrakoa irabazi dugu eta Osasunaren eta Logroñesen kontrakoak berdindu.

Eta arlo pertsonalean, zelan joan da?

Debuta iazko ekainaren 19an izan zen. Izterrean tatuatuta dut data.

Galdu egin genuen, baina berdin zigun. Hain geunden pozik debutatu izanaz!

Partidu bat kenduta, gainerakoetan titular jokatu dut. 45 minutuz hasieran, 60 minutuz gero, 75 minutuz... Nahikotxo jokatu dut eta fisikoki oso ondo ibili naiz. Pena bakarra da azken asteko entrenamendu batean ziztada bat sentitu nuela koادرizepsean eta ezin izan dut ligako lehenengo partidua jokatu. Baina ez da ezer larria eta asteen berriro entrenatzen hasi naiz. Taldean ezin hobeto hartu naute eta pozik nago.

Ia partidu guztiak titular jokatu izanak zeozker esan gura du.

Entrenatzaileek esan didate konfiantza dutela nigan. Entrenatzailea berria da eta hasieran ez ninduten ezagutzen, baina denboraldiaurrea hasi zenetik hona garapen ona izan dudala eta oso pozik daudela esan didate, eta horrela jarraitzeko eskatu.

Talde batean beti daude jokalari gazteei babesa ematen dieten beteranoak. Zure kasuan, nortzuk dira?

Jujuba Cardozo jokalaria maitagarria da, zelaitik kanpora asko zaintzen gaitu eta zelai barruan asko laguntzen digu. Sheila Elorzak, Ane Pérezek, Noelia Garcíaek eta Ane Camposek ere asko lagundu didate taldean barneratzen.

Iaz maila galdu eta gero, zelan da aurtentzen Eibarren helburua?

Lehenengo Mailara bueltatu gura dugu, baina badakigu bigarren maila oso lehiakorra dela. Gainera, aurtentzen formatua aldatu dute, estatu osorako multzo bakarra dago eta

urrutiago bidaiatu beharko dugu: Andaluziara, Galiziara...

Eta zelan da zure helburua?

Jokatzea eta taldeari laguntzea. Eta gutxi jokatzen badut, bada, lana gogor egitea jokatzeke aukera izateko.

Talde nagusiagaz hiru partidu jokatu zenituen iaz: Ligan bi eta kopan beste. Debutetik hasita, zelan gogoratzen dituzu?

Debuta orain denboraldi bi izan zen, 2021eko ekainaren 19an. Izterrean tatuatuta dut data hori. Hainbat jokalarik debutatu genuen eta Malen Olañetak, Uxue Guezalak eta hirurok data hori tatuatu genuen. Eibarrek Lehenengo Mailan jarraitzea segurtatuta zeukan eta beheko taldeko batzuei debutatzeko aukera eman ziguten. Sinesetza izan zen eta sekula ere ez dut ahaztuko. Titular jokatu nuen. Galdu egin genuen, baina berdin zigun. Hain geunden pozik debutatu izanaz! Joan zen denboraldikoak Athleticen eta Sevillaren kontrako partiduak izan ziren ligakoak, eta Murtziako Alamaren kontrakoa kopakoa.

Eibarrek entrenatzaile berria du aurtentzen, Yeray Martin andoaindarra. 29 urte baino ez ditu eta Antiguoko taldetik dator. Zelan beragaz?

Oso ondo. Asko zaintzen gaitu eta edozeri buruz berba egin dezakegu beragaz. Etxeko entrenatzaile bat behar genuela uste dut, Euskal Herrikoa. Mutilak entrenatzen dituzte eta berarentzat ere erronka handia izango dela uste dut.

Zer jokamolde planteatzen du? Zuri ondo datorkizu?

Goian presionatu eta aurkariaren bizkarrean espazioak bilatu gura ditugu. Eibarren aurtengo jokamoldea ondo datorkit, jokalaria azkarra naizelako.

Garbi dago baduzula golerako sena. Zertan hobetu behar duzu?

Fisikoki asko hobetu behar dut, kategoria batetik bestera dagoen alderik handiena horixe delako. Eta baloia dudanean azkarrago pentsatzen eta gauzak arinago egiten ahalegindu behar dut.



Irati Martin Eibarren kamisetagaz partidu batean.

Faben Ituarte eskualdeko ordezkari, eguenean hasiko den Olazar txapelketan

Urtero lez, afizionatu mailan goi mailan dabilzan pilotariek parte hartuko dute



Zaldibarko Olazar pilotalekuan eguen gauero izango dira jardunaldiak.

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Zaldibarko Olazar pilota txapelketak afizionatu mailako pilotaririk onenatarikoak batzen ditu urtero eta aurtengo 35. aldia ez da salbuespena izango. Goi mailako hamasei bikote arituko dira binaka, eta beste hamasei pilotari lau t'erdia barruan.

Irailaren 22tik aurrera, eguenero izango dira jardunaldiak, Gabon zahar eguneko final handira heldu arte. Honako hauek dira datorren eguneneko partiduak: Aurrekoetxea-Kuairan eta Olaetxea-Apezetxea binaka, eta Okamika-Etxeita kaiolan.

Datorren asteko eguenean jokatuko dute lehenengo jardunaldia Olazarren, irailaren 22an

Egueneko jardunaldiak 21:30ean hasiko dira.

Durangaldeak ordezkari bakarra izango du: Faben Ituarte atxondarra, lau t'erdian. Urriaren 6an estreinatuko da Zaldibarko txapelketan. Ituarte maila handian dabil, azkenaldian irabazitako txapelek eta lorturiko emaitzek erakusten dutenez. Ekainetik hona, Gasteizko eta Zaramagako pilota txapel-

ketak irabazi ditu, besteak beste. Baina aurkariak ere ez dira nolana hikoak: Aristegi, Zubizarreta, Irribarria... denak goi mailakoak.

Binaka beste hainbeste gertatzen da. Hainbat dira txapela etxera eramateko hautagaiak, Mata-Irurita, Alberdi-Iztueta, Murrutxuketa... eta ez dago besiteen gaitetik gailentzen den bikote faboritorik. Txapelketak hiru hilabete iraungo du eta funtsezkoa izango da azken txanpara sasoiaren heldzea, baina ordura arte ez dago lo hartzerik, jardunaldi bakoitzeko galtzailek etxerako bidea hartuko dute eta.

ANBOTOk zuzenean eskainiko du Sorginen Lasterketa, zapatuan

Lasterketa 09:00etan hasiko da eta www.anboto.org webgunean jarraitu ahal izango dira bertako gorabeherak

MENDI LASTERKETA • J.D.

Sorginen Lasterketa jarraitzeko modu bi daude aurten. Axpera joan eta mendiko proba bertatik bertara ikusita edo sare sozialen eta Interneten bitartez. Antolatzailerak Twitch-eko kanal bat sortu dute lasterketa zuzenean emateko: sorginenlasterketa2022. ANBOTO lasterketako laguntzailea denez, emankizun hori www.anboto.org webgunean ere jarraitu ahal izango da zapatuan, 09:00etan hasita. Esatariak ez

dira nolana hikoak izango: Oier Ariznabarreta eta Zigor Iturrieta, Durangaldeak dituen korrikalari onenatariko bi. Gainera, Ariznabarretak behin baino gehiagotan irabazi du Sorginen Lasterketa.

Ibilbide osoko irudiak

Lasterketako irudiak ibilbideko zortzi bat lekutan jasoko dituzte eta errealizazio gunea plazan ipiniko dute. Horrez gainera, dron batek Anbotoko gailurreko irudiak hartuko ditu.



2020ko Sorginen Lasterketa.

Jokaldia

Ezuste protagonista

Hasteko, esku pilotaren uda denboraldiaren normaltasunera buelta ospatu nahiko nuke. Egia da aurrez ere bizi izan ditugula murrizketarik gabeko partiduak, baina ekain eta urri artean giro bereziak jantzi ohi ditu frontoiak. San Ferminetan hasi eta San Mateoak arte jai giroa eta alaitasuna izaten da nagusi, eta pilotazaleok ez ezik, pilotariek ere modu berezian gozatu ohi dute denboraldi hau.

Lehiari dagokionez, Logroñoko torneoaren eta Caixabank Mastersaren azken zatien faltan, orain arteko balorazio orokorra egitea erabaki dut lerrootan. Arraroa badirudi ere, udako protagonista ez da Altuna izaten ari; ezta Laso ere. Bi hauen enpatxua aurreikusten genuen sasoi hasieran, baina lesioen erruz ezin izan dira erregulartasunez aritu. Hala ere,



Iñaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

Protagonista nagusien artean Jon Mariezkurrena aipatu behar da, zalantzarik gabe. Lau torneo irabazi ditu

Baina, garaipenez gainera, harrigarriagoa da aztelari nafarra nola irabazten ari den ikustea

maila onean jokatu dute egun dutenetan. Lasok hiru final jokatu ditu dagoeneko, eta horietako bat irabazi du; Altunak, aldiz, final bakarra jokatu du, eta hura galdu.

Protagonista nagusien artean Jon Mariezkurrena aipatu behar da, zalantzarik gabe. Lau torneo irabazi ditu (San Fermin, Donostia Hiria, Bizkaia torneoak eta Aste


Nagusia) eta horietako hirutan pilotari onenaren saria ere lortu du. Baina, garaipenez gain, harrigarriagoa da aztelari nafarra nola irabazten ari den ikustea. Nagusitasun handiz garaitu ditu partidetatik, eta, horrela, jokatu dituen 25 partiduetatik 4 baino ez ditu galdu. Datu harrigarria inondik ere! Horrelakoetan Zabaleta izaten da neurgailurik onena, eta elkarren aurka jokatu dutenetan gaur egun sasoi onenaren dagoen pilotaria dela berretsi du Jonak.

Nahiz eta ahaztuta dagoela dirudien, nagusiek eta zenbait pilotarik enpresatik kanpo nahi izan zutela errealitatea da. Ez al du inork autokritikarik egingo?

Zabaleta ere ezin aipatu gabe utzi. Partidu gehien jokatu dituen pilotaria da. Mariezkurrenari buruz esandakoak esanda ere, ez gaitzen nahastu, atzeko koadroek nagusi bakarria izaten jarraitzen dute.

merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida euskaraz eta sarean!***

Merkatartitza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902

Argazkiak - Datuak - Kokapena

(urtean 50€)

Botikak

BARIKUA, 16 · 09:00-09:00

CAMPILLO MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI SAN
PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 17 · 09:00-09:00

NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

ETXEBARRIA MONTEVIDEO
ETORB. 2 - DURANGO

CAMPILLO MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

BALENCIAGA EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

GAZTELUMENDI J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

UNAMUNZAGA MURUETATORRE
2C - DURANGO

DE DIEGO INTXAURRONGO
22 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

MELERO, ROSA MARI SAN
PEDRO 31 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO
ARANA 6 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3
- ZORNOTZARUIZ, JUAN EL ALTO-
BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

DOMEKA, 18 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA MONTEVIDEO
ETORB. 2 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 19 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 20 · 09:00-09:00

DE DIEGO INTXAURRONGO
22 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 21 09:00-09:00

SAGASTIZABAL ASKATASUN
ETORB. 19 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 22 · 09:00-09:00

MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia



Zorionak, **Jon!** Ia 9 urte gure txikienak! Oso ondo pasau zure egune eta jarraitu kirolaz topera disfrutatzen. Asko maite zaitugu eta barre pilo bat egiten dogu zurekin. Primerakoa zara! Naian eta Arriandikoen partez besakarda bat.



Zorionak, **Ibai!** 9 urte egiten ditu gure etxeko mutil handiak! Oso ondo ospatu eta besarkada handi bat etxeko guztien partez!



Zorionak, **Jon**, etxeko danon partez. Txapeldun handi bat zara zentzu danetan 10 urtegaz! Gozatu topera zure familiarekin eta lagunekin, guk danok zurekin gozaten dogun moduen!



Abuztuaren 16an **Lierrek** 8 urte egjin zituen. Zorionak, laztana! Jarraitu zaren bezalakoia izaten. Muxu handi bat danon partez, bereziki Noran partez. Maitte zaittugu!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 21° / 12° ☁

ASTELEHENA ↓ 25° / 12° ☀

EGUAZTENA ↓ 26° / 11° ☀

DOMEKA ↓ 25° / 9° ☁

MARTITZENA ↓ 25° / 10° ☀

EGUENA ↓ 29° / 11° ☀

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

"Bran! zeozer adierazteko, nik neuk ere erabiltzen ditut botoiak"

Nuria Orduña botoi sistema bat erabiltzen du Bran bere txakurragaz. Sistema horregaz elkarren artean komunikazio estuagoa lortu daitekeela uste du getxoztarrak



Nuria Orduña
Irakaslea
GETXO | 1992

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI
Nuria Orduña getxoztarra Abadiño bizi da orain bost urtetik, eta modu berezia du Bran txakurragaz komunikatzeko, alfonbratxo batean duen botoi sistema baten bitartez. Sare sozialetan ospetsu bihurtu da Bran (@branparlante), Tik Tok-en eta Instagramen milaka jarraitzaile lortu ditu eta.

Zertan oinarritzen da Bran txakurragaz erabiltzen duzun botoi sistema?
Ikasketa prozesu bat da. Botoi bakoitza ekintza batez erlazionatu behar da. Zaintzaileak, botoi bat zapalduta, dagokion ekintza egingo du txakurraren edo katuaren aurrean, eta hainbat bider errepikatu, euren ere emaitza ber-

dina lortu dezaketela erakusteko. Botoi guztiekin batera hasi barik, banaka hasi nintzen ni Branegaz, oinarritzko ekintzekin. Orain 15 botoi ditugu, multzoka antolatuta: pertsonak eta animaliak, kaleagaz loturikoak, ekintzak (janaria, laguntza, mimoak eta jolasa) eta bestelakoak. Botoia zapalduta nire ahotsa entzun daiteke, beragaz erabiltzen dudana doinuagaz. Gainera, Bran! zeozer adierazteko, nik neuk ere erabiltzen ditut botoiak.

Zerk bultzatu zintuen Branegaz botoien bitartez komunikatzea?

Interneten hizkeraren patologia lantzen duen Christina Hunger ezagutzearan hasi zen dena. Pazien-

Bideoak grabatzen hasi nintzen, sare sozialetan ipintzeko, jende gehiago egon ziteelakoan probatzeko prest

teekin erabilitako teknikak bere txakurragaz erabilia lorturiko emaitzekin ikerketa unibertsitarioa hasi zuen. Egundokoa irudititu zitzaidan. Hasieran ez nion jaramon handiegirik egin, baina handik zenbait hilabetera jakin-mina sortu zitzaidan. Branegaz probatu gura nuen. Sistemaren funtzionamendua ondo harra-

patu zuela ikusi nuen, eta apurka aurrerapenak egin genituen. Bada, bideoak grabatzen hasi nintzen, sare sozialetan ipintzeko, nire egoera beretsuan jende gehiago egon zitekeelakoan probatzeko prest.

Beraz, komunikatzeko premiak baino gehiago, jakin-minak bultzatu zaitu.

Branek kalera joan gura duela jakiteko, jada ez dut botoi sistemarik behar, baina hiztegia askoz gehiago zabaltzeko aukera dut. Badakit Branek noiz gura dituen mimoak, noiz jatekoa edo kalera joatea. Baina geroago eta botoi gehiago erabilia komunikazio estuagoa lortu daiteke. Adibidez, badago Bunny izeneko txakurra (*whataboutbunny*) gai dena zaintzaileari esateko hankan min duela. Hungarren ikerketan parte hartzen du eta botoi piloa du.

Itxaroten zenuen halako bilakera?

Inondik inora. Hala ere, ez dut botoi kopuru bat helburu. Lau genituenean ere pozik nengoen! Branek zeozer berria zelan adierazi ez dakiela ikusitakoan gehituko ditut botoiak, edo nik ekintza berri bat probatu gura dudanean. Gauza asko errepikatu behar dira eta pazientzia handia behar da. Komeni da etxeko guztiek erabiltzea.

Zeintzuk gustatzen zaizkio gehien?

Janaria eta kalea, konbinazio hori du gustokoen.

Tik Tok-en 2 milioi jarraitzaile ditu Branek eta Instagramen 118.000.

Ezagutu zaituzte inoiz kalean?

Bai, ez genuen halako oihartzunik espero. Hala ere, Branegaz gaude-nean baino ez gaituzte ezagutzen. Mezu piloa jasotzen dugu! Gainera, gura barik, animaliak zainduta, ondo tratatuta, erlazio oso polita sortu daitekeen mezua zabaldu da. Oso polita da.

Zuretzat garrantzitsua da Bran adapatua dela nabarmentzea.

Bai, Bran erreskataturiko txakurra da. Familia baten premia duen txakur piloa dago, besteak bezain ederrak, azkarrak... Bran ez da beste bat baino azkarragoa, eta gura duenak proba dezake botoi sistema hau. Denbora eta pazientzia handia baino ez dira behar. Askok txakurrak izaera batez lotuta erosten dituzte, baina txakurtegi batean horrelako 3-4 egon daitezke bakarrik.

Lau-hortza

Martin Loizate Sarrionandia Behargina



Erreginaren txanpona

Telebista programa eta periodiko nagusietako artikulisten idatziekin nahikoa izan ez duzuenontzat, hemen dakartzuet Erresuma Batuko erreginaren heriotzaren harira beste istorio bat.

1920. urteko igande goiz bat zen Irlandako independentzia gerra deritzonaren baitan IRA zaharrak Britainar inteligentzia zerbitzuetako 11 polizia hil zituenean, bando errepublikanoan infiltratuta aurkitu ondoren.

Arratsaldean Croke Park Dublingo zelairik handienean futbol partidua jokatzen zen. Michael Hogan zen bisitarien kapitaina, eta ez zuen imajinatuko, epaileak sakea nork atera erabakitze txanpona airera bota zuen momentu berean, britainiar polizia Dublingo gazteluan beste txanpon bat bota zutela airera, kasu honetan, goizeko ekintzari mendekua Croke Parken edo Sackville kalean gauzatu deliberatzeko. Futbol zelaiko txanponak ifrentzua markatu zuen: bisitariak aterako zuten sakea. Dublingo gaztelukoak, berriz, aurpegia. Polizia futbol zelaira sartu eta 65 irlandar zauritu eta 14 hil zituen tiroz, tartean Hogan, bisitarien kapitaina.

Igande odoltsua eta 91 urte geroago, hil berri den erreginak, Ingalaterraren eta Irlandaren arteko harremanen normalizazioa erakutsi nahian (6.000 polizia mobilizaturik, eta hala ere istiluak egon ziren) eginiko bisitan Corke Park bisitatu zuen. Prentsan agertu ez zen arren, diotenez, erreginak txanpon bat aurkitu zuen futbol zelaian. Aurpegiaren alde zuen bistan, baina ez zen bere aurpegia.

DURANGO

**HIZKUNTZA
ESKOLA OFIZIALA**

72,36€
Ikasturte osoa

MATRIKULA ZABALIK

Irailaren 29ra arte (2.fasea)

Urtarrilaren 31ra arte (gainontzeko faseak)

Talde presentzialak eta erdipresentzialak

Ziurtagiri Ofiziala

Deutsch · English · Euskara · Français